

**KUBAKO EKONOMIA SOZIALISTA
1959KO IRAULTZATIK 1990KO
“GARAI BEREZIRA” ARTE: ETAPA
NAGUSIEN GAINBEGIRADA BAT**

IONE ELKORO

HISTORIAKO GRADUA

2019/2020 IKASTURTEA

IBAN ZALDUA

EKONOMIA HISTORIA ETA EKONOMIA ERAKUNDEAK

LANAREN LABURPENA

Lan honek Kubak 1959ko iraultzaren ondoren izan zuen bilakaera ekonomikoa azaltzen du Garai Berezira arte. Horretarako, Castroren diktadura garaiak izan zituen faktore historiko, soziologiko, politiko eta kulturalen azalpena egiten da. Kubak gainontzeko herrialdeekin izan zuen harreman ekonomiko eta politikoak nolakoak izan ziren aztertzen dira, herrialde horiek Kuban izandako eragina ikusiz. Funtsean, herrialde sozialistaren garapen ekonomikoa aztertzea da helburua, ziklo ekonomiko gora-beheratsuak izan zituela ondorioztatuz.

Idazlanak bost etapa ezberdin banatzen ditu, oro har, Kubako testuinguruan (batez ere testuinguru ekonomikoan) aldaketak eragin dituztenak.

Hasteko, iraultza gertatu baino lehenagoko egoeraren azalpena egiten da, hau da, Kubak independentzia lortu zuenetik (1898) iraultza gertatu zen arte (1959). Etapa horretan Kubako diktaduren eraginaren azalpena emateaz gain, Estatu Batuekiko menpekotasun ekonomikoa aztertzen da, ondorio sozioekonomikoetan zentratuz.

Bigarrenik, iraultza gertatu eta ondorengo bi-hiru urteen bilakaera nolakoa izan zen ikusten da, Kubako 1960ko hamarkada hasierako egoera, neurriak, gizartea, helburuak... zeintzuk ziren aztertuz. Bigarren etapa ulertzeko kontuan izan beharrekoa da trantsizio garai bateko testuingurua dela, ekonomia kapitalista batetik ekonomia sozialista baterako trantsizioa hain zuzen. Ekonomiaren aldaketak noski, gizartearen eta beste hainbat aspekturen aldaketa eskatzen duenez, gora-beherak antzematen dira. Azalduko denez, Kubako historiako hiru urte horietan zentralizazio nahiak eta dibertsifikazioa nabarmendu ziren, menpekotasun ekonomikoa ezabatzeko eta autonomia ekonomikoa lortzeko helburuarekin.

Ondorengo etapak 1960ko hamarkada osoa biltzen du. Garai horretan oster, Kubak eredu sobietiko zentralizatua aplikatu zuen, beste hainbeste neurriren artean. Kubaren eredu sozialistaren inguruko eztabaidak ere agerian geratuko dira. 1960ko hamarkadako bigarren erdialdean azukrearen plana da azpimarragarri, zeinetan Kubako ekonomiaren esparru handiena azukrearen produkzioan zentratu baitzen.

1970eko hamarkada, laugarren etapari hasiera emango diona, Kuba ELEKEn sartu zenean hasi zen (1972). Ekonomia orekatuagoa lortzen duen arren, azukrearekiko menpekotasuna sakondu zen, baita gainontzeko herrialde sozialistenganako lotura

ekonomikoak ere. 1980tik aurrera deszentralizaziorako neurriak hartu ziren, oster, geldialdia ematen hasi zen 1986. urtean. 1989-1991 urteen artean ELEK eta SESBen desagerpenek, zuzenki eragin zuen Kubako ekonomian. Krisi gogor baten garaia nabarmendu zen 1993ra arte. “Garai Berezia” delakoaren ezarpenak neurri ekonomiko desberdinak hartzera bultzatu zuen Kuba, modu horretan, kapitalismorako joera hartzen hasiko zelarik.

AURKIBIDEA

1. INDEPENDENTZIATIK IRAULTZARA	5
2. KAPITALISMOTIK SOZIALISMORAKO TRANTSIZIOA (1959-1961)	7
3. ESTATU SOZIALISTAREN OINARRIAK (1962-1970).....	10
3. 1. Planifikazio zentraliztua 1961-1963.....	10
3.2. Eredu sozialista alternatiboen eztabaida eta saiakera (1964-1966).....	13
3. 3. Guevara eredua (1966-1970)	16
4. EREDU SOBIETIKOAREN SARRERA ETA ERREFORMA EKONOMIKOA (1971-1985)	17
5. BLOKE SOBIETIKOAREN ERORKETA ETA GARAI BEREZIA (1986-1993)	20
6. ONDORIOAK.....	25
BIBLIOGRAFIA	27

1. INDEPENDENTZIATIK IRAULTZARA

Kubako iraultza mugimendu historiko handia izan zen, gobernu aldaketak eragiteaz gain, harreman sozialen, ekonomikoen eta kulturalen aldaketa globalak egiten saiatu zena, 1898ko independentzia prozesutik aurrera (Macías, 2016: 61).

Kubak independentzia prozesutik (1898-1902) aurrera kolonialismoaren eta inperialismoaren menpekoa izango zen testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoari egin behar izan zion aurre. Independentzia prozesutik estatubatuarren tropen okupazio militarra eta presentzia ekonomiko eta politikoak jarraitu zuen, 1959ko iraultzara arte (Valdés, 1971: 47).

Independentziatik aurrera beraz, Kubak hiru errealitateri egin behar izan zion aurre: gizarte esklabista izatetik gizarte kapitalista izaterako trantsizioa (lehenagotik hasia zena), azukrearen monolaborantza (Etxebarria, 2016: 296) eta inperialismo estatubatuarren sarrera (beste bi errealitateak indartu zituen). Independentzia ondorengo bost hamarkadetan, zenbait aldaketa esanguratsu gertatu ziren, zuzenki Kubako ekonomiari eragin zietenak (1933ko estatu kolpea edo “Sarjentuen Errebolta”, 1940ko Konstituzioa eta 1952ko estatu-kolpea), ordea, egia da orokorrean Kubako ekonomiak zailtasunean jarraitu zuela. (Macías, 2016).

XX. mendeko 1950eko hamarkadan Kubak herrialde neokolonialaren itxura izaten jarraitzen zuen, estatubatuarren presentzia mantentzen baitzen (Uharte, 2016: 3); zerbitzu telefonikoaren eta elektrizitatearen %90a kontrolatzen zuten, trenbideen %50a, industriaren %23a, eta azukrearen produkzioaren %40a.

Bizi-kalitate desberdintasun handiak zeuden hiri eta landa eremuen artean. Izan ere lurren kontzentrazioak industrializazioa mugatzen zuen, egitura sozialean polarizazioa nabarmenduz (landa eta hiriaren artean) (Nohlen eta Stahl, 1990: 10). Desoreka ekonomikoak oso handiak ziren. 1953ko populazioaren erroldan oinarrituta, soilik kubatarren %35.2ak zuen ura etxeetan, eta %28ak mediku zerbitzuak. Kubako langabezia %25ean zegoen. Desoreka ekonomiko eta sozialek herrialde azpigaratu baten ezaugarri guztiak biltzen zituzten. Kuban, etengabeko krisi batean zeudela zirudien.

1952ko Batistaren estatu-kolpea positiboki egokitu zen Estatu Batuen interesetara, ez kasualitatez. Horrek kalte ekonomikoak ekarri zituen, batez ere azukrearen produkzioaren alorrean. Testuinguru horretan abian jarri zen instituzio berrien sorrera eta

berregituraketa, hala nola, *Banco Nacional de Cuba* (BNC), *Banco de Desarrollo Agrícola* eta *Banco de Desarrollo Económico y Social*. Ekonomiaren Kontseilu Nazionala ere sortu zen, politika ekonomikoa programatzeko helburua zuena. Bitartean, Industria Sustatzeko lege berri batek lantegi berriak sortzeko pizgarriak ekarri zituen.

Kubak azukrearekiko zuen menpekotasuna oso handia zen (Nazio-Produktu Gordinaren %28-29a osatzen zuen azukrearen industriak). Merkatuan azukrearen prezioak zuen gora-beherak, erosketen alterazioek eta Estatu Batuek azukrearen gainean zuten prezio finkatuak, Kubak kontrolatu ezin zituen kanpo-faktoreak ziren. Azukreak Kuban zuen nagusitasuna zela medio, gora-behera haiek nabarmen eragiten zioten Kubako NPGari, ezegonkortasun ekonomikoa eraginez. Azukrearen sektorea geldituta zegoen eta ezin zuen ekonomiak beharrezkoa zuen dinamismoa eragin.

1956-1957 urteetan lan indarraren %16a langabezia zegoen, eta %14a azpienpleguan. Gainera, azukre sektorearen langabeziari “urtaro hila” gehitzen zitzaion, hau da, uza jasotzen ez den garaia.

Hezkuntzak Hego Amerikako garapen maila altuena izan arren, Kubako analfabetismo-tasak oso desorekatuak ziren landa-eremu eta gune urbanizatuen artean (%41.7 landan eta %11.6 hirietan). Desorekak etxebizitzan, umeen hilkortasun-tasan eta diru-sarreretan ere nabarmentzen ziren (Mesa-Lago, 1994: 14-15).

Laburbilduz, Kubako gizarteak 1902tik eredu neokolonialarekin jarraitu zuen, eta 1940ko hamarkadatik modernizazio kapitalistarako saiakerak egin zituen (Uharte, 2016: 3). Ondorioak klase politikoaren banaketa eta sistemaren zilegitasun eza izan ziren.

1958ako azaroan hasi zen iraultzaren partaideak *Movimiento 26 de Julio*, FEU (*Federación Estudiantil Universitaria*), MRC (*Movimiento de Resistencia Cívica*) eta FAR (*Fuerzas Armadas Revolucionarias*) izan ziren. Ikusi daiteke, iraultzaren partaideak ez zirela alderdi marxista batekoak: iraultza ez zen sozialismora heltzeko helburuarekin egin. Beraz, esan daiteke iraultza bera, ez zela marxista izan. Marxismoaren ideiak, modu progresiboan ezarri ziren Gobernu iraultzailean, urrats horrek nazioarteko testuinguruarekin zer ikusi handia izan zuelarik (Macías, 2016: 76).

Gehiegi ez luzatzeko, iraultzaren gora-behera politikoen narrazioa egingo ez den arren, esan beharrezkoa da Kubako iraultzak Latinoamerikako gerrilen garaipena posible zela

egiazatu zuela, inperialismoaren aurka eta borroka armatuaren bitartez (Masson, 2013: 251).

2. KAPITALISMOTIK SOZIALISMORAKO TRANTSIZIOA (1959-1961)

1959 urtetik aurrera Kubak iraultza baino lehenagotik jaso zuen herentziaren transformazioa burutzeari ekin zion. Herentzian geratu zena, Estatu Batuekiko menpekotasun ekonomikoa, nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritzen zen egitura ekonomikoa, azukrearen monolaborantza eta monoesportazioa, eta langabezia izan ziren (Everlenny, 2008: 31).

Fidel Castro lider gisa izendatu zutenean 1959ko otsailean, hasi zen lege sozialen ezarpena egiten gobernu berriaren eskutik (Everlenny, 2008: 32). Erreferentzia marxista iraultza ondoren ezarri zen arren, liderrek biztanleriaren parte-hartzea aldarrikatu zuten lehenagotik, Gobernu iraultzaileak eliteen interesak betetzen ez zituela erakutsiz. Klaseen arteko oreka lortzea (justizia soziala, pobreziaren desagerpena, desberdintasun sozialak eta biztanleriaren gaineko presioak ezabatuz adibidez) (Alonso, 2011), eta Estatu Batuekiko menpekotasuna ezabatzea ziren gobernu iraultzailearen helburu nagusiak (Nohlen eta Stahl, 1990: 11).

Instituto Nacional de Reforma Agraria sortu zen (INRA). INRAk Nekazaritza Erreforma jarri zuen martxan 1959ko maiatzaren 17an (Díaz, 2014: 2). Lur- jabetza handiak desjabetu ziren, eta jabe bakoitzak gehienez 402 hektarea izateko muga ezarri zen. Desjabetu ziren sailen arteko batzuk lurrik gabeko nekazarien artean banatu zituzten. Banaketak aldaketa handia eragin zuen Kuban, betidanik egon baitziren latifundioak (Macías, 2016: 78).

INRA gainera, Kubako ondasun askoren estatalizazioaz arduratu zen, modu ezberdinetan eta lege ezberdinekin aplikatu zena (Everlenny, 2008: 34). 1959ko kolektibizazio neurrien bitartez diktadurako funtzionarioen eta kontrairaultzaileen jabetza eta ondasunak, eta alokairuan zeuden etxeak desjabetu ziren (Mesa-Lago, 1994: 19).

Iraultza baino lehenagotik Kubak zeukan azukrearen monolaborantzak zaildu egiten zuen beste sektoreen finantzazioa. Izan ere ziklikoak izango ziren krisiei aurre egiteko irtenbidea dibertsifikazioan ikusten zuten, hamarkadetan zehar gertatu ez zena. Kubak, beraz, ondasunak inportatu behar zituen herritarren eskaera asetzeko. Inportazioek noski,

Kubaren hazkunde eta produktibitatean eragina zuten, Kubaren inflazioa eta zorrak ugarituz (Santamaría, 2014: 697). Ildo horretatik dibertsifikazio prozesua jarri zen martxan; arroza, tuberkuluak, frutak eta barazkiak ekoizten hasi ziren (Mesa-Lago, 1994: 21).

1959tik aurrera, Estatu Batuekiko harreman ekonomikoa mantendu arren (Santamaría, 2014: 697), dependentzia murrizten saiatu zen Kuba. Estatu Batuetako jabetza guztiak desjabetu zituen Gobernu iraultzaileak (azukre-lantegiak, bankuak, korporazio telefonikoak, elektrizitate enpresak,...) (Alvarez, 1998). 1960ko urrian partzuergo atzerritarren eta burgesia kubatarren jabetzak desjabetu ziren (Macías, 2016: 82), Estatu Batuek, erantzun gisa, Kubako azukrea erosteari utzi zion (Alvarez, 1998), eta Kubari esportazioak egiteari utzi zion 1960an (sendagai eta elikagai batzuk izan ezik). Gerra ekonomikoa bati ekin zitzaion (Macías, 2016: 83).

Hori zela eta, 1960an Kuba eta SESBen arteko bost urteko (1960-1964) akordio komertziala sinatu zen (Valdés, 1971: 57). Aldebiko akordio horren bitartez SESBek Kubari urtero milioi bat azukre tona erosi, petrolioaren horniketa eskaini (prezio oso baxuan), eta makineria eta produktu kimikoak salduko zizkion. SESBek gainera 100 milioi dolarreko kreditu bat eskaini zion Kubari. Kubak, halaber, Alemaniako Errepublika Demokratikoarekin eta Txekosloveniarekin ere tratu ekonomikoa izan zituen (Mesa-Lago, 1994: 21).

1961ean Estatu Batuen eta Kubaren arteko harreman diplomatikoa hautsi eta Kubaren isolamendu ekonomikoa nabarmendu zen (García, 2018).

Estatu Batuek pentsatzen zuen Kubako sozialismoaren eragina Latinoamerika osora hedatuko zela. Komunismoaren beldurrez, Fidel Castro hiltzeko konspirazio ezberdinak gauzatu ziren CIAren eskutik. Ekintza haietako bat izan zen Cochinos Badiako inbasioa (1961). Apirileko inbasioak porrotean amaitu zuen. Izan ere, estatubatuarrek pentsatzen zuten kubatarren gehiengoak ez zuela Castrorekin bat egiten. Kubatar nazionalismoaren aurkako eraso gisa hartu zuten kubatarrek, eta inbasioa babestu zutenak kontrairaultzaile gisa kondenatu zituzten (Careaga, 1997: 19).

Horren ondoren, herrialdearen autonomiaren erakusle gisa, ministerio, instituzio eta enpresa berriak sortu eta haien pisua handitu zuen Kubak. Horren adibide izango litzateke ANAP delakoaren sorrera (*Asociación Nacional de Agricultores Pequeños*) (Macías, 2016: 317).

Kolektibizazio prozesuaren ondorioz, sektore publikoko lanpostuak ia %9a izatetik ia %50 inguru izatera pasa ziren 1959-1960 urteen artean. Izan ere hartutako neurrien helburuetako bat langabezia-tasa jaitea zen. Langabezia estazionala hiritartze prozesuarekin lausotu zen. Horren ondorioz Habanako biztanleria 1960an bikoiztu egin zen (Mesa-Lago, 1994: 22).

Tentsio egoeren aurrean, Gobernuak babes-neurriak hartu zituen: milizia armatuak sortzeaz gain, *Junta Central de Planificación* (JUCEPLAN) eta *Banco para el Comercio Exterior* fundatu zituzten (Alonso, 2011).

Prozesu horietan, ikusi daiteke Kubako iraultzak hiru urtetan kapitalismotik sozialismorako trantsizioa aurrera eramane zuela. 1959 eta 1961 urteen arteko neurriek eragin zituzten emaitzak anitzak izan ziren, ostera ez daude osatuta datu faltak direla medio. Hala ere, badakigu hazkunde ekonomiko bat gertatu zela Gobernu iraultzaileak hartu zituen neurrien ondorioz. Nikela, tabakoa, eta zigarroek izan ezik, nekazaritza eta industria produktuek hazkundera izan zuten (Mesa-Lago, 1994: 23).

Gobernu iraultzaileak hartutako neurrien aurrean, klase altuko eta klase ertaineko dirudunenek Kubatik ihes egin zuten, gehienak Miamiara. Jaiotza-tasak handitu egin zirenez eta hilkortasunak berdintsu jarraitu zuenez, populazioaren hazkundera gauzatu zen, 1960ko emigrazio masiboak eman izan ez balira (Mesa-Lago, 1994: 25). Urte haietan jarri ziren martxan alfabetizazio kanpaina (ikasle boluntarioak, irakasleak,... eta abar) eta txertatze kanpainak (Alvarez, 1998).

Laburbilduz, 1959 eta 1961 urteen artean Kuban joera ekonomiko gorabeheratsuak egon ziren. Neurri kolektibizatzaileek ez zuten ondorio negatiborik ekarri, eta Estatu Batuekiko menpekotasuna nabarmen jaitsi zen. Ordea ez zen lorpen garrantzitsurik gertatu azukrearen monolaborantza saihesten saiatu zirenean. Errentaren banaketa modu askoz orekatuan ematen hasi zen, eta horrek landa eremuari egin zion mesede (Mesa-Lago, 1994: 25).

3. ESTATU SOZIALISTAREN OINARRIAK (1962-1970)

3. 1. Planifikazio zentralizatua 1961-1963

Cochinos Badiako porrotaren eta Estatu Batuak eta Kubaren arteko harreman diplomatikoen hausturaren ondoren aldarrikatu zuen Castrok Kubaren izaera sozialista. Hortik aurrera Kubak eredu sobietikoa jarraituko zuen (Careaga, 1997: 19).

Kubako ekonomiaren planifikazioa (ekonomia eredu, neurriak...) SESB eta Txekoslovakiaren aholku teknikoei jarraituz egin ziren. Hala ere, Leo Huberman, Paul Sweezy, Paul Baran edo Ernest Mandel bezalako ekonomialari marxisten eragina nabarmena izan zen, orobat (Mesa-Lago, 1994: 27). Helburua eredu sobietiko zentralista ezartzea zen (Santamaría, 2014: 698). Merkatu sozialismoaren ideia baztertu zuten, eta ekonomia planifikatu eta zentralizatuaren alde egin zuten (Stalinek 1920ko hamarkada amaieran SESBn ezarri zuen ekonomia ereduari jarraiki). 1962-1970 urteen artean hartuko ziren neurrien arabera, eskasia, inflazioa, espekulazioa eta langabezia desagertuko ziren (Careaga, 1997: 15).

1961 eta 1962 urteen artean gelditzen ziren eskola, ospitale eta saltoki pribatuak nazionalizatu ziren, eta berdina egin zen 1959an sortu ziren kooperatiba erdi-pribatuekin. 1963an, bigarren Nekazaritza Erreformatarekin 67 hektarea baino gehiago zuten lurrak desjabetu ziren (Nohlen eta Stahl, 1990: 12). Gelditzen ziren lur pribatuen kontrola INRAren eskuetan zegoen. INRAk *acopio*¹ ezarri zuen. Gainera, nekazari pribatu guztiak sartu ziren ANAP elkartean. Azukre-kainaberak zituzten plantazioetan arroza, fruta eta barazkiak landatzen hasi ziren, dibertsifikazioaren planari jarraiki.

1958-1963 urteen artean azukrearen produkziara zuzendurik zegoen plantazioen kopurua jaitsi, eta babarrunak, kakahueteak, arroza, kotoia, tuberkuluak... landatu ziren. (Mesa-Lago, 1994: 27-32). Industrializazio azeleratuko planari ere ekin zitzaion, barne eskaera asetzeko helburuarekin (García, 2005: 23).

Aipatu bezala 1961ean sektore ezberdinak kontrolatzeko Ministerioen sare bat sortu zen (Industriaren Ministerioa, Nekazaritza Ministerioa, Ogasun Ministerioa, eta abar). Ondasun bera produzitzen zituzten enpresa ezberdinak fusionatu ziren: 1958-1961 urteen artean 38.300 enpresa izatetik 18.500 enpresa izatera pasa ziren, Ministerioen

¹ *Acopioak* lur pribatuetako uztaren zati bat Estatuari nahitaez saltzea zekarren, merkatuan salduko zen prezioa baino baxuagoan (Mesa-Lago, 1994: 27).

kontrolpean (Mesa-Lago, 1994: 28). 1962an ekonomiaren errazionamendua ezarri zen Kuban, eta prezioak izoztu ziren (inflazioa saihesteko) (Mesa-Lago, 1994: 31).

Urte berean, Kubak hiru egoerari egin behar izan zion aurre: kontrairaultzaileen indarra (Estatu Batuak babestua), Estatu Batuek ezarritako blokeo ekonomiko eta komertzialaren ondorioak, eta haien antikomunismoak bultzatutako atentatu eta erasoen jarraipena (Macías, 2016: 86).

Cochinos Badiako porrotaren ondoren, Estatu Batuek *Operación Mangosta* jarri zuen martxan. Kubaren inbasio militarra zen operazio sekretuaren helburua. SESBen inteligentzia zerbitzuek egoeraren berri izan zutenean, Habanak abisua jaso zuen. Gainera, sobietarrek Kubako lurraldean misilak kokatzeko proposamena egin zieten. Kubarentzako misilen ezarpena komenigarria zen, etorkizuneko edozein eraso militar saihesteko. Bestalde SESBentzako Gerra Hotzeko ekintza estrategikoa zen, Estatu Batuentzako mehatxu berri bat zelako (Macías, 2016: 89). Modu horretan hasi zen Misilen Krisia (1962ko urriaren 14an). John F. Kennedyk gogor kritikatu zuen Kuba eta SESBen misilen tratua. Hala ere, urte bereko urriaren 28an Nikita Khrustxovek misil nuklear guztiak erretiratzea erabaki zuen, gobernu iraultzailearen iritzia kontuan hartu gabe. Misilen krisiak ez zuen asko iraun, baina Mosku eta Habana arteko harremanak hoztu egin ziren (Macías, 2016: 89). Horrek sozialismoaren inguruko eztabaidak ekarri zituen, gerora bi adar esanguratsu banatuko zirenak, Carlos R. Rodríguez-en pragmatismoa alde batetik eta 1961-1965 artean Industria Ministro izan zen Ernesto Guevararen dibertsifikazioaren diskurtsoa, bestetik (Santamaría, 2014: 698).

Mailegu eta inbertsioen bitartez, SESBeko, Alemaniako Errepublika Demokratikoko eta Txekoslovakiako enbriagarriak makineria erosi zuten. Ordea, eskuratu zuten tresneria berria oso zaharkitua zegoen, beraz oso zaila zen merkatuan lehiakortasuna lortzea; gainera, teknikariak falta ziren. Beraz, ekarri zuten makineria metatu egiten zen inolako erabilerarik eman gabe. Kubak ordea, lehengaien beharra izaten jarraitzen zuen, eta gainontzeko herrialde sozialistei eskatu behar izan zizkien. (Careaga, 1997: 26). Kubak ez zuen ikatzik, ez petroliorik, ezta energia hidroelektrikorik ere (ez baitzuen ur-korronte indartsurik)... Petrolioa eskuratzea bereziki garestia zen, inportatutako petrolioak kubatarren beharren %98a asetzen baitzuen. Hori zela eta, barne-merkatu oso murriztua zuen, eta produktu enbriagarriak esportatzeko oso aukera gutxi. Egoera horri, Estatu

Batuen mehatxua gehitzen zitzaion (Kubak 1962an aurrekontuen %13.3 defentsan xahutu behar izan zuen) (Mesa-Lago, 1994: 33).

Emaitzak anitzak izan arren, aitzitik 1961-1963 urteak atzeraldi ekonomiko baten erakusle izan ziren orokorrean. Esan bezala, dibertsifikazio planari jarraiki azukrearen produkzioa jaitsi zen, ostera, garapena izan behar zuten produktuek ere murriztapena izan zuten (tabakoa, kafea, babarrunak, tuberkuluak...), baita produktu industrialek ere (elektrizitateak, zigarroek, ehunek, garagardoak...). Arrantzaren emaitzek hazkundera izan zuen, ordea (Mesa-Lago, 1994: 37).

Testuinguru horretan, planifikatzaileen ekonomiaren ezagutza faltak, norabide ekonomikoaren zehaztasun ezak, egoera kudeatzeko ez-jakintasunak... zer ikusia izan zuen nekazaritza produktu askoren galerarekin (antolaketa falta zela eta, maiz, ez zegoen produktuak garraiatzeko baliabiderik, adibidez).

Sobietarren petrolioaren menpekotasunak berdin jarraitu zuen, beraz, Kuba Estatu Batuen menpeko izatetik, SESBen menpeko izatera pasa zela esan daiteke (Blanco, 2008: 9).

Errazionamenduak ez zuen inflazioa mugatzea lortu eta merkatu beltzaren prezioak, prezio ofizialak baino 5 edo 10 aldiz garestiagoak ziren. Nekazariak *acopioaren* ondorioz, oso prezio baxuan saldu behar zuten beraien uzta, askok nahiago izaten zuten beraien produkzioaren soberakina merkatu beltzera bideratzea. Esan dezakegu *acopioa* bera, merkatu beltza handitzeko pizgarria izan zela (Mesa-Lago, 1994: 39).

Langabezian zeudenak azpienplegura pasatu zituzten, eta beraz 1963an langabezia erdira murriztu zen 1963an eta lanpostuak hazi egin ziren (batez ere nekazaritza alorrean). Azpienpleguak epe motzera abantailak ekarri zituen arren, kostu ekonomikoak handitu ziren eta produktibitateak jaitsiera izan zuen. Gainera lur publikoetako nekazariak 4-5 orduko lanaldiak izan arren, 8 ordu ordaintzen zizkieten, horien produktibitatea nekazari pribatuen erdia zelarik. Bestetik esan beharrekoa da enpresak fusionatzeko politikak lanpostu asko beharrezkoak ez izatea eragin zuela (Mesa-Lago, 1994: 40).

Errenta modu orekatuan banatzeko, soldata berdintasuna bermatzen saiatu zen Gobernuak. Horretarako, gehien kobratzen zuten langileen soldatak jaitsi ziren (medikuenak, hezkuntza zerbitzuetako langileenak...), eta nekazari txikien soldatak mugatuak ziren *acopioaren* bitartez.

Analfabetismoa ezabatzeko neurriekin jarraitu zuten (emakumeek horretan paper garrantzitsua izan zutelarik) (Nohlen eta Stahl, 1990: 22), eta osasun sistema unibertsal eta nazionala sortu zen. Hilkortasun-tasa, umeen hilkortasun-tasa, gaixotasun kutsakorren hedapena eta emigrazioa hazi egin ziren, oro har. Hazkunde- demografikoa jaitsi arren, 1962ko Misilen Krisiaren ondorioz emigrazioak murriztapena izan zuen, 1963rako hazkunde demografikoa eraginez (Mesa-Lago, 1994: 41-42).

3.2. Eredu sozialista alternatiboaren eztabaida eta saiakera (1964-1966)

Lehen aipatu bezala, 1962ra arte Kubako liderren artean eztabaida ekonomikoak ematen hasi ziren. Dudatan jartzen zen ea sobietarren eredu ekonomikoa aplikagarria zen Kubarako.

Ernesto Che Guevara eta bere jarraitzaileentzako, komunismoa lortzeko bidea langilearen kontzientziaren garapena zen, kapitalismotik komunismorako trantsizioaren beharrik gabe. Horretarako merkatuaren edo eskaintza eta eskariaren legea ezabatu beharko litzateke. Produkzioaren kolektibizazio absolutua defendatzen zuen, baita planifikazio zentralizatua ere, enpresen arteko merkataritzako harremanen haustea, diruaren ezabapena, pizgarri materialen deuseztapena etab. Produktibitatea, produktuaren kalitatea,... pizgarri moralen bitartez lortuko ziren. Langilearen kontzientzia hezkuntzaren bitartez garatuko zen Guevararen arabera (Mesa-Lago, 1994: 43-44).

Guevararen pentsamenduaren aurrean talde moderatu edo pragmatikoa zegoen, Carlos Rafael Rodríguez ekonomialariak babesturik (INRAren presidente 1962-1965 artean). Horiek merkatu sozialismoa defendatzen zuten. Beharrezkoa ikusten zuten kapitalismotik komunismo baterako trantsizioa egotea. Beraz, fase horretarako ezin izango litzateke eskaintza eta eskaeraren legea ezabatu, ezta merkatuaren mekanismo batzuk ere (diruaren erabilpena adibidez). Enpresa nazionalak askoz ere autonomia handiagoa izango zuten, adibidez langileak kaleratzeko edo kontratatzerako orduan. Rodríguezen ideiekin bat egin zuten René Dumont eta Charles Bettelheim planifikatzaile frantsesek, Kubako gobernuaren aholkulari ekonomiko gisa aritu zirenak. Izan ere, azken horiek ez zituzten soilik Kubako ekonomia sozialistaren inguruko eztabaidak ikertu, berdina egin zuten SESB eta Txinako prozesu iraultzaileen eztabaidekin.

Guevaristek planifikazio zentralizatua bilatzen zuten heinean, pragmatikoen deszentralizazioa eta enpresen arteko lehia bilatzen zuten. Bi ereduak funtzionatu zuten

aldi berean. Eredu libermanista² aplikatu zen Kubako enpresen heren baten gainean, batez ere nekazaritza eta barne- eta kanpo-merkataritza alorretan, oinarritu zena. Bestetik, modelo guevaristak sektore publikoko bi herenen gaineko erantzukizuna izan zuen, batez ere industrian zentratzen zena. Eredu bakoitzak gainera, instituzio finantzario batek kontrolatzen zuen: guevaristek Ogasun Ministerioa zeukaten (aurrekontuez eta kapitalaren esleipenez arduratzen zena), eta pragmatikoeek Banku Nazionala (maileguak emateaz eta interesak jasotzeaz arduratzen zena) (Mesa-Lago, 1994: 45-47).

Guevaristen neurriekin Kubako aktibitate ekonomikoa estatuaren menpe egongo zen. Dirua kontabilitate helburuekin erabiliko zen soilik, eta ez zen merkatuaren inolako legerik aplikatuko. Libermanistek nekazaritza eta merkatu enpresen herena baino gutxiagoren gainean autofinantzazioa ezarri zuten (García, 2005: 25).

Kuba 1964tik aurrera lehen mailako ondasunen produkzioan zentratu zen, hala nola nikela, zitrikoak eta azukrea (García, 2005: 24). Azukrearen produkzioarako itzulera zenbait helburu zituen: baliabideak hornitzea etorkizunean industrializazioan zentratzeko eta dibertsifikazioa ziurtatzeko, herrialde sozialistekiko zorrak murriztea eta dibisak lortzea beste herrialde sozialistekiko merkataritza jarduera eduki ahal izateko eta herrialdearen bizi-kalitatea hobetzeko. Modu horretan, Etorkizuneko Azukrearen Planak (1965-1970) %50 zabaldu zen azukre plantazioen lur zabalera, errota berriak eraiki ziren, azukre-kainaberaren barietate gehiago landatu zen eta ia guztiz mekanizatu zen lana (1965ean 6 milioi tona azukre lortu ziren) (Mesa-Lago, 1994: 49-50). 1970erako 10 milioi tona azukre ezarri ziren helburu gisa (Alvarez, 1998).

Planaren helburuen barne zegoen nekazari instalazio berrien sorrera, abeltzaintzan metodo berrien sarrera (intseminazio artifiziala, arrantza ontziteriaren handitzea... etab.), eta elektrizitate, nikel eta zementuaren produkzioaren handitzea. Planaren arabera, azukrearen produkzioaren hazkundearen ondorioz, esportazioen handitzea emango litzateke, ordainketa-balantza hobetuz, eta beraz, baliabide berrien eros-ahalmena ziurtatuz. Kubak bere esfortzu guztiak azukrearen produkzioan zentratu zituen, horren garapenak beste sektore guztiena ekarriko zuen esperantzarekin (Mesa-Lago, 1994: 50-51).

² Ovsy Hrihorovitx Liberman ekonomialari sobietikoaren proposamen ekonomikoa zen eredu libermanista. Libermanek ekonomia sozialistaren garapenerako merkatu librearen neurri batzuk aplikatzea proposatzen zuen, adibidez pizgarri materialen erabilera edo kapitalaren gainean zergak ezartzea. Libermanentzat ekonomia sozialisten arazo handienetarikoa zen enpresen autonomia falta (Sovilla eta García, 2013: 167).

SESBek Kubarekin seiurteko akordio komertziala (1965-1970) sinatu zuen. Akordioaren bitartez, SESBek azukre gehiago inportatuko zuen Kubatik (ordurarte milioi 1 edo 2 tona erosi bazituen, orduetik aurrera 5 milioi tona erosiko zituen), eta laguntza teknikoa eskainiko zion Kubari (helburua Kubaren modernizazioa eta hedakuntza lortzea zen) (Mesa-Lago, 1994: 51). Kubak petrolio merke erosten zuen bitartean, garesti saltzen zuen azukrea SESBen (García, 2005: 24).

Industrializazio plana ordea atzeratu egin zen, horrek gune urbanizatueta gehiegizko lan-eskua egotea ekarri zuelarik. Desoreka hori zuzentzeko, landatik hirirako migrazioak murrizteko neurriak hartu ziren adibidez, 1964an ezarri zen derrigorrezko hiru urteko soldadutza (16-20 urte arteko gizonezkoentzat). Neurri horren bitartez, beranduago sartuko ziren gazteak lan-mundura (Mesa-Lago, 1994: 53).

Errentaren banaketari dagokionez, guevaristek beharren arabera egitea proposatzen zuten. Zerbitzu sozialak doan eskainiko ziren (Estatuak hornituta), eta sustapena pizgarri moralen (ez materialen) bitartez lortuko zen. Pragmatikoez langileen arteko desberdintasun puntu bat onartzen zuten, eta pizgarri materialen alde zeuden. Errentaren banaketa modu orekatuagoan gauzatu zen, eta beraz desberdintasun sozialak murriztu ziren (Mesa-Lago, 1994: 54).

Eta horretako ondorioak askotarikoak izan ziren, osteria esan daiteke 1964-1966 urteen artean hazkundera nabarmendu zela orokorrean. Etorkizuneko Azukrearen Planak emaitza onak izan zituen, azukrearen esportazioak, esportazio osoaren %87a biltzen zuelarik. Hala ere, petrolioarekiko menpekotasunak nabarmen izaten jarraitzen zuen.

Nikelaren, petrolioaren, elektrizitatearen, zigarroen eta arrantzaren produkzioa hazi egin zen, baina industriak, ordea ez zuen garapenik izan. Inflazioak 1964an oso altua izaten jarraitzen zuen arren, 1965erako murriztu egin zen. Langabezia apaldu egin zen, zerbitzu publikoak zabaltu eta heriotza-tasak jaitsi (horrek zer ikusia izan zuen martxan jarri ziren txertaketa-kanpaina handiekin). Pentsiodunak %40 gehiago ziren 1962-1965 urteen arteko zerbitzu publikoaren zabalkuntzari esker, eta emigrazioa gehiago kontrolatu zen (Mesa-Lago, 1994: 55-58).

3. 3. Guevara eredu (1966-1970)

Bi eredu ekonomikoen arteko lehiak ez zuen asko iraun. Guevarak Industriako Ministro gisa dimisioa aurkeztu zuen, eta Rodriguezek berdina egin zuen INRAko presidente gisa. Aldaketa multzo handia gertatu zen 1960ko hamarkada amaieran.

1966an merkatuaren legeak erabiltzeari utzi zitzaion. Estatuak nekazaritza lurren gaineko kontrol handiagoa izateko neurriak hartu ziren, hala nola, lurak saldu edo herentzian jarri ezin ahal izatea. Garraio, saltoki eta industria pribatuak ere kolektibizatu ziren (Mesa-Lago, 1994: 60-61).

1968an Fidel Castrok *Ofensiva Revolucionaria* diskurtsoaren bitartez sozialismora gerturatuko zituzten neurrien azalpena egin zuen: jabetza pribatuentzako lan egiten jarraitzen zuten denda txikiak estatuaren parte izatera pasatuko ziren (Díaz, 2014: 4), eta 55.636 negozio txiki konfiskatu ziren (ile-apaindegiak, tabernak, jatetxeak, manufaktura tailerrak... etab). Nekazaritza eta abeltzaintza izan ziren Kubako sektore pribatu bakarrak (Macías, 2016: 92).

Azukrearen planari jarraiki, azukrearen industriaren gainean egindako inbertsioak guztien %70a izan ziren. Ordea, 1970erako 10 milioi tona azukrearen produkzioa ez zen lortu (nahiz eta ordura arte bildu zen uztarik handiena eduki) (Alvarez, 1998).

Abeltzaintzan produktibitatea handitzeko neurriak hartu ziren arren (intseminazio artifiziala adibidez), 1970erako ikusi zen zezenen hazkunde-tasa ez zela altua izan eta, bazka-lurak ez zirela ondo mantendu. Behiaren eta txerriaren haragiaren, esnearen, tabakoaren, kafearen, zitrikoen, babarrunen, tuberkuluen eta barazkien produkzioak ere jaitsiera izan zuen. Etapa horretan arrantzak paper garrantzitsua izan zuen. Txinatik ekartzen zen arrozaren inportazioaren jaitsieraren ondorioz, eskaerari aurre egiteko arrozaren plantazio handiak landatzea erabaki zen (Mesa-Lago, 1994: 67-74).

SESBek petrolioaren esportatzen jarraitu zuen (1967ko murriztapena³ kontuan hartu gabe), batez ere Castrok Txekoslovakiaren inbasioa babestu ondoren 1968an.

Errazionamenduaren ondorioz, kontsumo nazionala jaitsi zen, eta produkzio nazionalaren eta inportazioen kostuak hazi ziren. Langabeziaren arazoak jarraitu egin zuen etapa

³ 1967an SESBek petrolioaren horniduraren %3a jaitsi zuen. Castrok ekintza hura salatu zuen, eta ondorioz, iraultza aurreko Kubako alderdi komunistako militante prosobietikoen aurkako neurriak hartu zituen ("Mikrofakzioa" deituak), SESB Kubako ekonomiaren inguruko informazioa eskaintzeaz leporatuta (Mesa-Lago, 1994: 68).

honetan (1965-1969). Gobernua arazo horiek pizgarri moralekin eta lan-eskuaren militarizazioarekin estaltzen saiatu zen (Mesa-Lago, 1994: 63). Estatuak diru-laguntza gehiago eman behar izan zituen. Zirkulazioan zegoen diru kantitatea handitu egin zen, eta ondasunak eskuratzeko ahalmena gutxitu. Diruak, trukeak egiteko zuen balioa galdu zuen, eta ondorioz, jada ez zen lan egiteko pizgarria. Horrek eragin zuzena izan zuen merkatu beltzean, batez ere 1968. urtetik aurrera (Mesa-Lago, 1994:64).

Garai honetako datuak ez dira guztiz fidagarriak. Estimazio bat eginda, esan daiteke 1966-1970 urteen artean geldialdi edo jaitsiera ekonomiko bat egon zela. Etorkizuneko Azukrearen Planak (1966-1970) ez zituen bere helburuak bete (plangintzatuta zegoen %75a bete zen). Aurreikusita zegoen kopurua betetzea ezinbestekoa zen, Kubaren merkataritza defizita eta SESBekiko zorrak murrizteko. Industrializazio programa berrartzea eta biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzea ere, azukrearen produktibitateak aseko zuen.

1970ean izan ezik, Kubako esportazioen balioak ez zuen aldaketarik izan, inportazioen balioa osteraz hazi egin zen 1965-1969 urteen artean. Merkataritza defizita handitu egin zen, beraz, SESBekiko menpekotasuna bezala. 1970erako langabezia nabarmen jaitsi zen (langileen %1.3 zegoen langabezian). Emakumeak enpleguaren munduan zuten parte hartzea handitu egin zen (1970erako langile aktiboen %18.3). Sektore dinamikoena zerbitzuak izan ziren. Landa-eremuko eta hirietako biztanleriaren arteko analfabetismo desberdintasuna erdira murriztu zen 1970erako. Hilkortasun-tasa orokorra mantendu egin zen, osteraz umeen hilkortasuna hazi egin zen (beherakoa, eskarlatina edo barizelaren ondorioz) (Mesa-Lago, 1994: 78-80).

4. EREDU SOBIETIKOAREN SARRERA ETA ERREFORMA EKONOMIKOA (1971-1985)

Kubaren etapa honetan argi ikusten da aspektu sozialean hartutako neurriek ondorio positiboak eragin zituztela (adibidez biztanleriaren bizi-kalitateari dagokionez). Aitzitik, ikusten da aspektu ekonomikoan hartutako neurri eta erreformak ez zirela ondo aplikatzen Kubako testuingurura, eta ondorioz, ez zirela helburu ekonomikoak betetzen.

Kuba antolakuntza juridiko, ekonomiko eta instituzional berri baten eraldaketan sartu zen 1970eko hamarkadan, iraganeko arrasto idealistak alde batera uzteko nahian.

Antolakuntza hura, gainontzeko herrialde sozialisten ereduari jarraituz burutu zen; izan ere Kuba 1972an Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseiluan (ELEK) sartu zen (Marquetti, 2003: 14). Modu horretan beste herrialde sozialistak bezalako programa eta planak antolatu zituzten. Izan ere, Kubaren helburua, sozialismoaren eraikuntzarekin jarraitzea zen, Europako ekonomia sozialistekiko gertutasun handiago bat lortuz (Everlery, 2008: 37).

Horrela Kubak, SESBen gomendioen laguntzaz, zenbait neurri hartuz zituen: inbertsio planak bertan behera utzi ziren, kontsumo-ondasun iraunkorren banaketa egin zen langileen artean (produkzioa handitzeko pizgarri gisa), eta 1975eko Kubako Partidu Komunistaren (PCC) Lehen Kongresuak bost urteko plana ezarri zuen, zeinak teoriarik industrializazioaren garapena baitzuen ardatz (Everlery, 2008: 37).

Bestalde, *Sistema de Dirección y Planificación de la Economía* (SDPE) onartu zen eta erreforma ekonomiko bati ekin zitzaion. SDPEek ekonomia erregulatzeko helburua zuen. SDPEk enpresei eta haien baliabideen gaineko kontrolari autonomia eman, merkatu harremanen neurriak ezabatu (nahiz eta kontabilitate alorrean merkatu harremanen legeak mantendu), eta planifikazioa zuzendu behar zuen (Díaz, 2014: 7).

ELEK-en sartzek eskaintzen zituen abantailez baliatu zen Kuba (prezio baxuak adibidez). Kontuan izan behar da garai honetan nekazaritzak hazkundera izan zuela; aitzitik, azukrearen produkzioaren menpekotasuna sakondu egin zen. Azukrearen esportazioak eragiten zituzten sarrerek, Kubak jasotzen zituen ia sarrera guztiak betetzen zituen. Gainera nabarmena zen azukrearen produkzioa Kubako beste sektore ekonomikoen “lokomotora” zela. ELEKek Kubaren ekonomia “lotu” egin zuen azukrera, izan ere herrialde sozialistak azukrearekin hornitzeko ardura zuen Kubak (Everlery, 2008: 38), hurrengo taulak, epealdi honen bilakaeraren amaiera ostekoak, argi uzten duen bezala.

1. taula: Kubako merkataritza ELEKeko herrialdeekin, 1988-1989 urteetan

Kubako merkataritza ELEKeko herrialdeekin			
Kubako esportazioak ELEKera (guztiaren %)		ELEKetik Kubak egindako inportazioak (guztiaren %)	
Azukrea	%63	Elikagaiak	%63
Nikela	%73	Lehengaiak	%86
Zitrikoak	%95	Erregaiak eta lubrifikatzaileak	%98
Ron eta bestelako edariak	%80	Produktu kimikoak	%57
<i>Display</i> -ak eta osagarri elektronikoak	%100	Makineria eta tresnak	%80

Iturria: norberak egina. Datuak: Ministerio de Comercio Exterior de Cuba, 1990

Esperientzia sobietikoak deszentralizazio baten beharra iradokitzen zuen. 1972-1975 urteen artean egindako erredakzio prozesu baten ondoren (herritarren parte hartzea sustatzen saiatu zena), plebiszituan onartu, eta Errepublikaren Konstituzio berria indarrean jarri zen 1976an. Deszentralizazioa zuenez helburu, Kubako lurralde ezberdinetako banaketa politiko-administratibo berri bati ekin zitzaion: 14 probintzia eta 169 udalerriz osatuko zen ordutik aurrera. Administrazioa berregituratu zen, Finantza eta Estatistika Batzordea sortu zen, Kubako Banku Nazionala berregituratu zen, eta abar. 1980ko hamarkadan Kuba, kanpo-merkataritzaren estatuaren monopolioan oinarritu zen, izaera zentralizatuarekin (García, 2005: 25-28).

Bestalde, nekazariak produkzioaren zati handi bat merkatu beltzean saltzen zutela ikusita, 1980ko Erreforma antolatu zen (Sovilla eta García, 2013: 168). Eraginkortasuna handitzea, hazkundera bermatzeko ekonomia arrazionalagoa aplikatzea, eta espezializazioa handitzea ziren helburu nagusiak (Everlenny, 2008: 39). Industrializazioa garatzeko neurriak ere jarri ziren martxan. Nekazarien Merkatu Librearen sorrerak (1980) nekazariak produktu batzuk modu askean saltzeko aukera eskaintzen zien (García, 2005: 25), betiere Estatuari entregatu beharreko *acopia* bete ondoren. Merkatu libre horretan prezioak eskaintza eta eskariaren legeak ezarriko zituen. 1980ko Erreforma “liberalizatzaileak” ere bakoitzaren kontura zabalduko negozio txikiak onartzen zituen (igeltserotza, aroztegiak eta abar), baita lan pribatu bitartezko etxebizitzaren eraikuntza ere

(Sovilla eta García, 2013: 168). Gainera, ekonomia kapitalistetako herrialdeekin merkataritza harremanak hazi ziren (horrek kanpo-zorrak handitu zituen) (Everlery, 2008: 39).

Castrok neurri haiek gogor kritikatu zituen, izan ere, sozialismoa kutsatuko zuen neurri kapitalista ororen aurka zegoen, Nekazarien Merkatu Librea kapitalismoaren emaitza onartezin gisa deskribatuz. Errealitatea da 1980ko hamarkadako lehen urteetan produkzioa eta dibertsifikazioa hazi zirela (iraultzatik emaitza onenetarikoak izan zuen etapa izan zen). Industrian eta eraikuntzan hazkundera nabaritu zen. Horrek zer ikusia izan zuen azukrearen prezioaren igotzearekin eta SESBetik emandako maileguekin. Kubak, ordea, arazo larriak izaten jarraitu zuen, batez ere ekonomiaren planifikazio okerragatik, zirkulazioan zegoen gehiegizko diruagatik eta esportazioak handitzeko ezintasunagatik (kopuru eta aniztasunari dagokionez) (Everlery, 2008: 41). SDPEren baitan, bateraezintasunak agertu ziren sistemaren funtzionamenduaren eta Kubaren ekonomiaren testuinguruaren artean (Marquetti, 2003: 14). Merkatuetan saltzen ziren prezioak izugarri igo ziren (merkatuan saltzen ziren gaineko prezioen kontrolik ez zegoelako, eta kooperatiben eta nekazarien soberakinak ez zirelako merkaturatzen) (Sovilla eta García, 2013: 169).

Langabeziak izaera gora-beheratsuak izan zituen arren, 1985erako hazi egin zela ondorioztatu daiteke, ziur aski, 1980ko Erreforma “liberalizatzaileen” ondorioz. Azpimarratu behar da emakumeen parte hartzea enpleguan nabarmen hazi zela, bereziki hirugarren sektorean. Analfabetismoa murriztu egin zen (landa zein eremu urbanizatueta), matrikulazioak hazi, eta hezkuntza-zerbitzuen banaketa orekatu egin zen. Hilkortasun-tasa 1970eko hamarkada erdialdean murriztu zen arren, 1980ko hamarkadatik aurrera berriz egin zuen gora, herrialdearen zahartzearen ondorioz. Beherakoa, hepatitis edo malaria bezalako gaixotasunak hedatu ziren eta honen aurrean, gobernuak gizarte-segurantzaren estaldura zabaldu zuen (Mesa-Lago, 1994: 121-124).

5. BLOKE SOBIETIKOAREN ERORKETA ETA GARAI BEREZIA (1986-1993)

SDPEk jasotako kritiken ondorioz, 1980ko hamarkadaren bigarren erdialdea ekonomia zentralizatuago batean oinarritu zen Kuba, Garai Berezira arte mantenduko zena (Sovilla eta García, 2013: 170).

PCCren Hirugarren Kongresuan (1985), bost urteko plana antolatu zen (1986-1990), Kubako baliabideen aurrezte eta inportazioak ordeztzeko helburuarekin.

Gainera, Kubako hazkunde ekonomikoa bultzatuko zuten neurri berriak hartu ziren: turismoaren sustapena, kanpo-inbertsioen erakarpena, sozietate anonimoen sorrera eta zientzia alorreko inbertsioak (Ingeniaritza Genetikoa eta Bioteknologia Zentroaren sorrera adibidez) (Everleny, 2008: 42).

Neurri asko, ordea, bertan behera gertatu ziren 1986an, urte horrek geldialdi garai luze bat ekarriko zuen neurrian (Everleny, 2008: 42). Herrialde sozialistek eskaintzen zizkieten hornikuntzak murriztu egin ziren (haien ezegonkortasun ekonomikoa zela kausa) (Everleny, 2008: 42), eta 1986-1989ko bost urtekoan Nazio Errenta nabarmen jaitsi zen: merkataritza defizita hazi (Sovilla eta García, 2013: 171), eta kanpo-zorrak igo ziren (García, 2005: 26).

1980ko hamarkada amaieran ELEK-en partaideen gainbehera ematen hasi zen, 1991an sistema ekonomiko sobietarraren deuseztapena gauzatu zelarik (Odriozola eta Triana, 2015). Kuba eta gainontzeko herrialde sozialisten arteko harremanak moztu ziren ondorioz.

Fidel Castrok etapa horretan jarri behar izan zuen programa ekonomikoa “Periodo Especial en Tiempo de Paz” bezala izendatu zuen (Sovilla eta García, 2013: 172). Aintzat hartu behar da Kubaren sarreren gehiengoa esportazioetan oinarritzen zirela, eta esportazio haiek ELEKeko partaideei egiten zizkiela. Goiko taulara itzuliz, kontuan hartu behar da Kubako azukrearen %63a, nikelaren %73a, eta zitrikoen %95a zuzentzen zela herrialde sozialistetara. Inportazioak murriztu zirenez, horrek Kubako gizartean eragina izan zuen. Izan ere, inportatzen ziren elikagaiak (%63) murriztu ziren, baita lehengaien %86a, eta makineriaren %75. Kubaren BPG-ak erorketa izan zuen (Ministerio de Comercio Exterior de Cuba, 1990).

SESB eta beste herrialde sozialistekiko harreman komertzial, finantzario, eta teknologikoen galera ez zen Kubaren gainbeheraren arrazoi bakarra izan. Izan ere egoera horri Estatu Batuek Kubari ezarritako blokeo ekonomikoa zurruna gehitzen zitzaion (García, 2005: 26).

Barne-merkatuak ez zituen Kubako kapital-sarrera garrantzitsuak bermatzen, eta petrolioaren eskasia nabarmendu zen. Oinarritzko produktuen eskasia zegoen 1990eko

hamarkada hasieran (García, 2005: 27). ELEK erori baino lehenago, Kubako enpresak ez ziren lehiakorrak (merkatu finkatua baitzuten). Ordea, ELEKEn gainbehera gertatu zenean enpresak mundu mailan lehiakor izatera pasatu behar izan ziren ezustean (Marquetti, 2003: 17).

Garai Bereziko egoera ekonomiko eta soziala okerra zen: merkatu beltzeko kontsumoak areagotu ziren, garraioa eta enpresa batzuk paralizatu ziren (Sovilla eta García, 2013: 172). Esportazioak murriztu zirenez eta ondorioz sarrerak jaitsi zirenez, internazionalki lehiakor izateko aukerak indargabetu ziren. Gastu sozialak eta soldatak murriztu ziren (Castañeda, 1999: 227-228), enplegua prekarizatu zen (Odriozola eta Triana, 2015), langabezia eta azpienpleguak hazi egin ziren, eta familien bataz-besteko kontsumoa jaitsi egin zen (Comisión Económica para América Latina y el Caribe, 2000: 6).

Garai Bereziaren garaian, gizarte sozialista izatetik gizarte kapitalista izaterako trantsizioa hasi zen abian. Garapenerako beharrezkoa izan zen ordura arte mantendu zen eredu ekonomikoaren eta instituzioen alor baten eraldaketa (Comisión Económica para América Latina y el Caribe, 2000: 14). ELEKEn erorketaz geroztik ordea, ekonomiaren egitura politikoen transformazioa beharrezkoa zuela ikusi zen: merkatua liberalizatu, pribatizazioak martxan jarri eta ekonomia atzerrira begira orientatu behar izan zen (Castañeda, 1999: 224). Aitzitik, Kuban barne eztabaida piztu zen. Zer banaketa egon behar zen publiko eta pribatu artean? Nola bermatu justizia soziala eta ekonomia askatasuna krisi garaian? (Comisión Económica para América Latina y el Caribe, 2000: 15).

Garai Bereziko programa ekonomikoak larrialdi egoerako neurriak biltzen zituen: lanpostuak eta soldatak mantentzeko neurriak hartu ziren, errazionamendu sistema aplikatu zen, ekonomia deszentralizatu zen, merkataritza harremanak emateko espazioak handitu ziren, eta atzerriko jabetza pribatuak baimendu ziren (García, 2018). Kontingenteak sortu ziren; lana eta produkzioaren antolaketa berri bat zen, zeinaren arabera baliabide materialak eta lan-eskua azpiegituretako obra handietara bideratu baitzen. Nekazaritzan adibidez, Elikadura Programa sortu zen, zientzian, industria bioteknologiko eta farmazeutikorako ikerkuntzarako programa, eta eraikuntzan “terraplen” edo lubeten sorrera (Kuba eta inguruko irla txikiak elkartzen zituen eraikinak), turismoa bultzatzeko helburuarekin. Bestetik, Nekazarien Merkatu Librea

ezabatzea erabaki zen, izan ere, azken hura, Estatuko nekazal enprekin ordeztu zen (Sovilla eta García, 2013: 172).

Esan dezakegu Kuba gehiago “zabaldu” zela. Helburua, mundu mailako ekonomian ezartzea zen, interakzio komertzialak, inbertsioak eta transferentzia teknologikoak izateko. 1993ra arte luzatutako krisiari aurre egiteko eta ekonomia orekatzeko lege eta erreforma berriak egiteari ekin zion Kubako Gobernuak. Neurri horien bitartez, Kubako ekonomia hazkundea izaten hasiko da (Pérez-López, 2003: 567).

Urte berean, Kubaren dolarizazio erdi-ofiziala jarri zen martxan. Horren bitartez Kubako txanpon ofizialak paraleloki funtzionatuko zuen dolarrarekin. Mota horretako politika monetarioetan txanpon nazionalak jatorri sozialeko kontuetan erabiltzen dira (soldatak ordaintzeko adibidez), ordea dolarrak nazioarteko elkartrukeak egiteko balioko luke. Dolarra erabiltzeak zenbait onura zekartzan: interes tasak murriztea, inflazioa kontrolatzea, oreka monetarioa lortzea, nazioarteko inbertsioak erakartzea, krisia izateko aukerak murriztea...eta abar (González, 2006: 2). Horrekin, moneta ezberdinekin erosteko aukera ematen zuen dendak sortu ziren, baita dibisak aldatzeko Truke Etxeak ere (CADECA) (Pérez-López, 2003: 578). Kubarentzat onurak izateaz gain, Estatu Batuentzat ere izan ziren, izan ere, transakzioak egiteko kostuak murriztu eta negoziak egiteko aukera zabaltzen ziren. Kuba bezalako herrialde erdi-dolarizatuen arazoa zen txanpon nazionalaren devaluazioaren aukerak handitzen zirela, eta normalean merkatu beltza agertzen zela (González, 2006: 2-3).


Helburua atzeritik ekarritako diru-bidalketak suspertzea, diru nazionalaren likidazioa murriztea, eta merkatu beltzaren gaineko kontrola handitzea zen. Lehen bi helburuek ondorio positiboak izan zituzten, ordea merkatu beltzaren gaineko kontrola ez zen handitu (desoreka sozialak zabaldtu egin zirelako, eta ondorioz, merkatu beltzean saldu eta erosteko beharrak gora egin zuelako). Dolarraren iturri nagusiak atzerriko diru-bidalketak eta turisten sarrerak izan ziren (González, 2006: 5-11).

Urte berean, autoenplegua baimendu zen (medikuak, dentistak, irakasleak, hezitzaileak eta ikertzaileak). Autoenpleguan lan egiten zutenek oster, kuota bat ordaindu behar zioten Gobernuari. Estatuaren landetxe handien zatiketa ere baimendu zen *Unidades Básicas de Producción Cooperativa* delakoetan (UBPC). UBPC bakoitzak bere lurak lantzeko askatasuna izango zuen denbora mugagabe. Gainera bertatik lortutako produkzioa autokontsumora bideratu zatekeen. Legearen helburua laborarien produkzioa

handitzeko pizgarriak sortzean zetzan. 1994an enpresen eta haien produkzioak lortutako sarreren gainean zerga bat ezarri zen, eta nekazaritza produktuen merkatua legeztatu zen, eta bertako prezioak eskari-eskaintza legearen bitartez ezarriko ziren (Pérez-López, 2003: 579). 1995ean atzerriko inbertsioen inguruko legea onartu zen (García, 2005: 30), eta bi urte geroago bankuen erreforma gauzatu zen. Erreformaren bitartez, Kubako Banku Zentrala (BCC) entitate autonomo eta independentea bihurtuko zen (Pérez-López, 2003: 580).

1993ra arte Kuban krisi garai gogorra gertatu zen. 1990eko hamarkadako krisia ezin da, ordea, ordura arte Kubak jasan zituen krisiekin konparatu, izan ere testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoa guztiz ezberdina zen. 1990eko hamarkadan Kubako transformazioa burutzen lagunduko zuen “potentzia mundialik” ez zegoen. Beraz, Kubak ez zuen eredu ekonomiko bat izan 1990eko hamarkadan, eta ondorioz “esperimentatu” behar izan zuen, baliabideak oso urriak ziren krisi testuinguru batean. Alde horretatik, ezagutza praktiko eta esperientzia falta nabarmena zuen Kubak (Sánchez eta Triana, 2008: 3).

2. grafikoa: Azukrearen esportazioak eta Nazioarteko turismoaren sarrerak, 1990-2000 (milioi pesotan)



Iturria: Perez-Lopez, 2003: 576

Jorge F. Perez-Lópezen grafikoan ikusi daiteke azukrearen esportazioak eta turismoak eragindako sarrerek kontrako bilakaera izan zutela. 1990eko hamarkada hasiera

turismoaren ekarpenak oso murrizak zirenean, azukrearen esportazioak oso altuak ziren. Ordea, izugarritzko jaitsiera izan zuela ikusten da, SESBen gainbeheraren eta herrialde sozialistekiko harreman komertzialaren galeraren ondorioz. Urte horretan turismoak izandako ekarpenak handitu zirela ikusi daiteke, azukrearena jaitsi zen bitartean (1996. urteko igoera alde batera utzita) (Perez-Lopez, 2003). Ezin daiteke ordezkapen batez hitz egin, turismoak apenas egin zuelako azukrearen sarreren erdia 2000. urtean. Ordea, azpimarratzekoa da Kubako ekonomiaren eragile garrantzitsu baten papera nabarmentzen hasten dela 1990eko hamarkada erdialdetik aurrera.

6. ONDORIOAK

Esan beharra dago Castroren lidergoak berebiziko garrantzia izan zuela Kubako diktaduran. Esan daiteke herrialde sozialistetan eragin handienetarikoa izan zuen liderra zela, Stalin edo Maoren atzetik. Iraultza gertatu zenetik, ziklo ekonomiko aldakorak izan ziren, tartean krisiak eta hazkundeak nabarmendu zirelarik. Ostera, 1959ko iraultza eta ondorengo hogeita hamar urteetako bereizgarria izan zen Kuba menpekotasunean mantendu zela. Alde batetik, gainontzeko herrialdeekiko dependentzia handia izan zuen; independentzia baino lehen Espainiaren menpekotasuna, independentzia ondoren Estatu Batuekikoa, eta iraultza ondoren SESB eta gainontzeko herrialde sozialistekikoa.

Bestetik, azukrearen dependentzia dugu aztergai, izan ere, iraultzatik aurrera Kubak dibertsifikazio neurriak aurrera eramanez nahi zituen arren, beti itzultzen zen azukrearen hiru "mono"-etara: monolaborantza, mono-merkatua eta mono-esportazioa (Uharte, 2016: 3).

Dena den, Kubako esperientziak nabarmen erakutsi du atzerriko laguntza ekonomikoa zein beharrezkoa den ekonomia garapenerako. Kubako iraultza bezalako aldaketa handi eta sakonek ekonomia eta politikaren arteko oreka lortzea beharrezkoa dute. Paradoxikoki, hogeita hamar urtetan lortu ez zen dibertsifikazioa, krisi handiaren ondoren lortuko zen, turismoaren gairik gabeko ondoren. Hala ere, ezin dezakegu esan hazkunde handia izan zenik 1990eko hamarkadako bigarren erdialdera arte.

1990eko hamarkadako garapen ekonomikoaren testuinguruan, populazioaren %45 zen iraultza baino lehen jaiotakoa (Nohlen eta Stahl, 1990: 8). Horrek esan nahi du ziur aski iraultza baino lehenagoko baldintzak jada ez zirela modu berdinean aplikatzen 1990eko

hamarkadan, iraultzaren testuingurua ez zuelako ezagutzen biztanleria berriaren zati handi batek.

Esan beharra dago bestalde, Kubako sozialismoak Kubari eskainitako abantailak anitzak izan zirela: giza-kapitala (eskolatze tasa altuak, osasungintza arloko aurrerapenak, milaka biztanleko teknikari asko, aurrerakuntza zientifikoak...), azpiegitura fisikoak (aireportuak, asfaltuzko errepideak...), eta abar. Zailtasunei dagokionez, Estatu Batuen blokeo ekonomikoa, sektore publikoko esperientzia eza, gehiegizko zentralizazioa, kultura ezberdinen arteko talka, eta urte askotan jasan zuen isolamendua dira azpimarragarriak (García, 2005: 31).

Zailtasunek XXI. mende hasieran pisua izaten jarraitu zuten, ondorio latzenak Kubako herritarrek pairatzen zituztelarik; sarrerek ez dituzte gastuak estaltzen, eros-ahalmena murrizta da, zerbitzu eta ondasun batzuekiko eskuragarritasunik ez dago...

Badirudi Kuba oso geldo garatzen joan zela, jada aipaturiko zailtasunak zirela medio. Gainera, Garai Berezia baino lehenagotiko arazo asko mantentzen ziren oraindik (eredu ekonomiko ez-eraginkorra, erdi-dolarizazioaren ondorio negatiboak,...).

Laburbilduz, iraultzak berak eredu ekonomikoaren aldaketa eragin zuen (izaera antikapitalista eta balore sozialistekin) (Fernández, 2016, 52), lehen urteetan bereziki ondorio positiboak eraginez (batez ere alderdi sozialari begira). Aitzitik, jada aipaturiko herrialdeekiko menpekotasunak, Estatu Batuen blokeo ekonomikoak eta azukrearen monolaborantzak asko mugatu zuen ekonomia sozialistaren garapena, amaieran lotura horrek (SESB eta gainontzeko herrialde sozialistekikoa) krisi handia eraginez (1990eko hamarkada hasierakoa) eta Garai Bereziaren ezarpena ekarriz.

Dena den, Kubako ekonomia sozialistak garapen sozial eta kulturala bermatu zuela ondoriozta daiteke, izan ere, gobernu iraultzaileak lanpostuak, osasungintza, hezkuntza... bezalako adarren garapena bultzatu zuen, goseteak eta langabezia galarazten saiatu zelarik. Balore sozialista haiek zabaltzeko nahiak gaur egun arte iritsi direla esan daiteke, Kubako subiranotasun nazionalaren erakusle (Fernández, 2016: 53).

BIBLIOGRAFIA

- Alonso, Aurelio (2011). “Cuba: Society after half a century of changes, achievements and setbacks”. *Scielo* [On-line], eskuragarri hemen: https://www.scielo.br/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0103-40142011000200002 [Kontsulta eguna: 2020/04/19].
- Alvarez, Elena (1998). *Cuba: un modelo de desarrollo con justicia social*. Mintzaldia. Chicago: Instituto Nacional de Investigaciones Económicas.
- Blanco, Juan Antonio (2008). “La transformación política del régimen cubano: una perspectiva desde la conflictología”, *Real Instituto Elcano* [On-line], eskuragarri hemen: http://www.realinstitutoelcano.org/wps/portal/rielcano_es/contenido?WCM_GL_OBAL_CONTEXT=/elcano/elcano_es/zonas_es/DT32-2008 Kontsulta eguna: 2020/04/22].
- Careaga, Gabriel (1997). “Cuba: las raíces de la revolución”. *Revistas Unam*, 16, 5-34.
- Castañeda, Rolando (1999). “Cuba y los antiguos países socialistas de Europa: la importancia de los aspectos institucionales y de economía política en la transición del socialismo a una economía de mercado”, *Association for the Study of the Cuban Economy (ASCE)* [On-line], eskuragarri hemen: https://www.ascecuba.org/asce_proceedings/cuba-y-los-antiguos-paises-socialistas-de-europa-la-importancia-de-los-aspectos-institucionales-y-de-economia-politica-en-la-transicion-del-socialismo-a-una-economia-de-mercado/ [Kontsulta eguna: 2020/04/20].
- Comisión Económica para América Latina y el Caribe - CEPAL (2000). *La Economía Cubana: Reformas estructurales y desempeño en los noventa*. Mexiko: Economía Latinoa.
- Díaz, Julio. A (2014). “Cuba: ¿Un nuevo modelo de socialismo?” *Centro de Investigaciones de Economía Internacional* [On-line], eskuragarri hemen: <http://biblioteca.clacso.edu.ar/Cuba/ciei-uh/20141014110948/CUBANUEVOMODELODESOCIALISMO.pdf> [Kontsulta eguna: 2020/04/29].
- Etxebarria, Gorka (2016). *Sozialismoaren historia labor bat*. Bilbo: Gite-ipes.

- Everlery, Omar (2008). “La estrategia económica cubana: medio siglo de socialismo” *Cahiers des Ameriques latines* [On-line], 57-58, 31-55, eskuragarri hemen: <https://journals.openedition.org/cal/1206> [Kontsulta eguna: 2020/04/17].
- Fernández, Olga (2016). “La revolución cubana en un nuevo contexto histórico”, *ResearchGate* [On-line], eskuragarri hemen: https://www.researchgate.net/publication/313781331_LA_REVOLUCION_CUBANA_EN_UN_NUEVO_CONTEXTO_HISTORICO [Kontsulta eguna: 2020/05/28].
- García, Jesus. M (2005). *La economía cubana desde el siglo XVI al XX: del colonialismo al socialismo con mercado*. Mexiko: SERIE.
- García, Margarita (2018). “Repensar en la Economía Política del Socialismo”. *Scielo* [On-line], eskuragarri hemen: http://scielo.sld.cu/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0252-85842018000200015&lng=es&nrm=iso&tlng=es [Kontsulta eguna: 2020/05/02].
- González, Mario (2005). “Dolarización, costos y beneficios. El caso de Cuba”. *Delaware Review of latin American Studies*, 2, 1-19.
- Macías, Joseba (2016). *La sociedad civil en la Revolución cubana (1959-2012)*. Bilbo: UPV/EHU.
- Marquetti, Hiram (2003). Análisis de las transformaciones en el sistema empresarial cubano. *Fórum Empresarial*, 8, 2-39.
- Masson, Caridad (2013). “Los comunistas cubanos y las luchas por el poder en los años 50”. *ResearchGate* [On-line], eskuragarri hemen: https://www.researchgate.net/publication/316900867_LOS_COMUNISTAS_CUBANOS_Y_LAS_LUCHAS_POR_EL_PODER_EN_LOS_ANOS_50 [Kontsulta eguna: 2020/04/17].
- Mesa-Lago, Camelo (1994). *Breve historia económica de la Cuba socialista: Políticas, resultados y perspectivas*. Madrid. Alianza Editorial.
- Ministerio de Comercio Exterior de Cuba (1990). *Resumen del comercio exterior cubano, 1988-1989*. Habana: Ministerio de Comercio Exterior de Cuba.
- Nohlen, Dieter eta Stahl Karin (1990). “El curso del cambio de rumbo de Cuba. Un balance del desarrollo económico, social y político”. *Revista de Estudios Políticos (Nueva Época)*, 67, 8-28.

- Odriozola, Silvia eta Triana, Juan (2015). “Estrategia de desarrollo y crecimiento económico en Cuba: dos caras de una misma moneda”, *Scielo* [On-line], eskuragarri hemen: http://scielo.sld.cu/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0252-85842015000100002 [Kontsulta eguna: 2020/04/29].
- Pérez-Lopez, Jorge F (2003). “El interminable periodo especial de la economía cubana”, *ResearchGate* [On-line] 173, 566-590, eskuragarri hemen: https://www.researchgate.net/publication/28136833_El_interminable_periodo_especial_de_la_economia_cubana.
- Sánchez, Jorge eta Triana Juan (2008). “Un panorama actual de la Economía Cubana, las transformaciones en curso y sus retos perspectivas”, *Real Instituto Elcano* [On-line], eskuragarri hemen: http://www.realinstitutoelcano.org/wps/portal/rielcano_es/contenido?WCM_GL_OBAL_CONTEXT=/elcano/elcano_es/zonas_es/DT31-2008 [Kontsulta eguna: 2020/04/27].
- Santamaría, Antonio (2014). “La Revolución cubana y la economía, 1959-2012. Los ciclos de política y el cielo azucarero”. *Anuario de Estudios Americanos*, 71, 691-723.
- Sovilla, Bruno eta García, Francisco (2013). “La economía cubana: entre voluntarismo e intentos de planificación (1959-2012)”. *Revista Mexicana de Ciencias Políticas y Sociales*, 219, 157-188.
- Uharte, Luis Miguel (2016). “El cambio económico en Cuba: las bases del nuevo modelo”, *Revista Electrónica Iberoamericana* [On-line], eskuragarri hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6492651> [Kontsulta eguna: 2020/04/29].
- Valdés, Nelson. P (1971). “La diplomacia del azúcar: Cuba y Estados Unidos”, *Academia* [On-line], eskuragarri hemen: https://www.academia.edu/14724463/La_Diplomacia_del_Azucar [Kontsulta eguna: 2020/04/22].